



ORIOK OUDALA

Euskaraz
bizi-bizi

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2020ko apirilaren 30a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean, eta telematikoki

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:30

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oriden.

Zinegotziak

Ainara Munduate Iguaran, Xabier Ibarguren Azkue, Beñat Solaberrieta Albizu, Bakarne Oriden Albeniz, Bittor Andres Alkorta, Lourdes Salsamendi Goñi, Andoni Torres Fernandez, Jon Basurko Sarasua, Amaia Gozategi Urbieto, Jose Javier Gomez de Segura Arce, Ana Priede Merchan eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi.

Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren 2020ko otsailaren 27ko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.



- 2.- Onartzea, egoki bada, Udal Aurrekontu Propioaren 3/2020 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteak, kreditua transferitzeko modalitatean.
- 3.- Onartzea, egoki bada, Udal Aurrekontu Propioaren 4/2020 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteak, kreditu gehigarrien modalitatean.
- 4.- Onartzea, egoki bada, 2020ko Udal Aurrekontu Propioaren kreditu ez erabilgarriak.
- 5.- Onartzea, egoki bada, Oriko Udal Musika Eskolan egindako ikasketen tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskala aldatzea, 2020-2021 ikasturteari dagokionez.
- 6.- Onartzea, egoki bada, Orion 2020-2023 urteetarako turismo-plana garatzeko enkarguaren adjudikazioa.
- 7.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, Oriko Udalak Ortzaika auzoan eta Hondartza eremuan autopista azpian dituen autokarabana-guneen erabilera arautzen duen udal-ordenantzari.
- 8.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN 2020KO OTSAILAREN 27KO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ZIRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira, **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA udalbatzarraren 2020ko otsailaren 27ko ohiko bilkurako akta.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL AURREKONTU PROPIOAREN 3/2020 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 3/2020 zenbakidun espedienteak kreditua transferitzeko modalitatean eginga dago eta 34.862 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2020ko apirilaren 27an diktaminatutakoa ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO**



HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ [Aldeko botoak: Anuska Esnal Oliden (EH BILDU), Ainara Munduate Iguaran (EH BILDU), Xabier Ibarguren Azkue (EH BILDU), Beñat Solaberrieta Albizu (EH BILDU), Bakarne Oliden Albeniz (EH BILDU), Bittor Andres Alkorta (EH BILDU), Lourdes Salsamendi Goñi (EAJ), Andoni Torres Fernandez (EAJ), Jon Basurko Sarasua (EAJ), Amaia Gozategi Urbietta (EAJ), Jose Javier Gomez de Segura Arce (EAJ) eta Ana Priede Merchan (PSE-EE-PSOE), guztira **HAMABI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Jose Angel Iparragirre Alberdi (ORAIN); guztira **ABSTENTZIO-BOTO BAT**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2020ko aurrekontuari dagokion 3/2020 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 34.862 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-Kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

Epe hori ez da kontatzen hasiko, hala ere, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak eta horren luzapenek COVID-19 gaitzak sortutako osasun-krisia kudeatzeko deklaraturako alarma-egoerak indarra galtzen ez duen arte.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipaturako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Emandako botoak azaltzeko txandan, Jose Angel Iparragirre zinegotziak (ORAIN) hartzen du hitza, eta adierazten du abstentzio-botoa eman duela arrazoi formal hutsengatik eta ez sakonengatik. Esaten du ez duela inolako arazorik kredituak aldatzeko espedientearen edukiarekin, baina faltan bilatzen duela bertan aurrekontuko partida jakin batzuk egotea. Adierazten du, baita ere, azken orduko inprobisazioa



iruditzen zaiola COVID-19ak sortutako egoerarako ozono-makina bat erosteko proposamena, eta uste duela udal-teknikariek endredatu egin dituztela politikariak kontu horrekin.

Alkateak hartzen du hitza eta harridura erakusten du Iparragirre zinegotziak emandako abstentzio-botoa dela-eta, Ogasuna eta Pertsonala batzordearen bilkuran baiezko botoa eman zuelako. Gainera, adierazten du, COVID-19ak eragindako pandemia dela-eta, etengabe sortzen dela beharra inbertsio berriak egiteko eta, ondorioz, aurrekontu-partidak egokitu behar direla, horiek finantzatu ahal izateko.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL AURREKONTU PROPIOAREN 4/2020 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 4/2020 espedientea kreditu gehigarrien modalitatean eginga dago eta 49.551 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2020ko apirilaren 27an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2020ko aurrekontuari dagokion 4/2020 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditu gehigarrien modalitatean eginga dago eta 49.551 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-Kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

Epe hori ez da kontaktzen hasiko, hala ere, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak eta horren luzapenek COVID-19 gaitzak sortutako osasun-krisia kudeatzeko deklaraturako alarma-egoerak indarra galtzen ez duen arte.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.



e) **Aurkezteko bulegoa:** Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) **Zein organoren aurrean:** Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 2020KO UDAL AURREKONTU PROPIOAREN KREDITU EZ ERABILGARRIAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2020ko apirilaren 27an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA 2020ko Udal Aurrekontu Propioaren kreditu ez erabilgarriak, guztira 714.995,25 euroko zenbatekoa dutenak: 489.856 euro, inbertsio-gastuak dira, eta 225.139,25 euro, berriz, gastu arrunta.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du, COVID-19ak eragindako pandemia dela eta, Udalaren diru-sarrerak nabarmen gutxitzea aurreikusten dela eta horrek Udala behartu duela 2020ko udal-aurrekontuko gastuen egoeran erabilgarri ez dauden kreditu batzuk jasotzera; hau da, aurrekontu-partida batzuk «izoztuta» geratuko dira aurrekontu-ekitaldiaren bilakaera zein den ikusteko zain, eta ekitaldiaren amaieran jakingo dugu zein den partida horien benetako egoera. Egoerak prudentziaz jokatzeari eskatzen duela esaten du.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL MUSIKA ESKOLAN EGINDAKO IKASKETEN TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA ALDATZEA, 2020-2021 IKASTURTEARI DAGOKIONEZ.

Udalbatzarrak gai hauen berri jakiten du: Musika Eskolaren 2020-21 ikasturterako proposatutako tarifak eta tasa akademikoak murrizteko araudia.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Danbolin Musika Eskolako zuzendaritzaren proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:



EZ IGOTZEA Udal Musika Eskolako 2020-2021 ikasturteko tarifak eta **MANTENTZEA** 2019-2020 ikasturtean indarrean dauden tarifak eta tasa akademikoak murrizteko araudia. Tarifak eta murrizketen araudia hauek dira:

4.3. Orioko Udal Musika eskolan egindako ikasketak

2020-21 ikasturtean aplikatuko diren tarifak honako hauek izango dira:

TARIFA BAKARRAK		EUROAK
a	Musika-mintzaira ikasleko (2. maila)	244
b	Instrumentu-ikasgaia ikasleko (2. eta 3. mailan)	356
c	Musika-tailerra ikasleko (1. mailan)	120
d	Ikasketa osagarriak (3. mailan)	244
e	Bigarren instrumentua ikasleko (2. eta 3. mailan)	641
f	Euskal dantza ikasleko	244
g	Euskal dantza ikasleko (beste instrumentu batean ere matrikulatua egonez gero)	244
h	Musika-instrumentuen alokairua (etxera eramanda)	114
i	Musika-instrumentuen alokairua (musika eskolan)	65
j	Instrumentu-taldea ikasleko	70
k	Instrumentu-taldea ikasleko (beste asignatura batean ere matrikulatuta egonez gero)	Doan

HOBARIAK 2020-21 IKASTURTEKO TASETAN

Baldintzak

Goian adierazitako tarifaren zergadunek hobariak izango dituzte, beren egoera ekonomiko-familiarraren arabera, Lanbide arteko Gutxieneko Soldatarekin (LGS) zuzenean lotuta eta bi zirkunstantzia hauekin ponderatuta:

- Familiaren etxebizitzan bizi diren eta errolatuta dauden pertsonen kopurua.



- Familia-unitatea osatzen duten kide guztien diru-sarreraren zenbatekoa, Lanbide arteko Gutxieneko Soldatarekin alderatuta.

Hori guztia, honako taula honen arabera:

	URTEKO SOLDATA, LANBIDE ARTEKO GUTXIENEO SOLDATAREKIKO ERLAZIOAN						
FAMILIA-UNITATEAREN KIDE-KOPURUA	LGS edo <	LGS + %10	LGS + %20	LGS + %30	LGS + %40	LGS + %50	LGS + %60
1-2	%90	%75	%50	%25	-	-	-
3	%90	%90	%75	%50	%25	-	-
4	%95	90%	%90	%75	%50	25%	-
5	%95	90%	%90	%90	%75	50%	%25
6	%95	90%	%90	%90	%90	%75	%50
7	%95	90%	%90	%90	%90	%90	%75

Hobariak eskatzeko alde zuzeneko baldintzak hauek dira:

- Orion erroldatuta egotea 2020ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik.
- Udalarekiko zorrik ez izatea.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- Nortasun-agiriaren kopia.
- Familia-liburuaren kopia.
- Errenta-aitorpenaren kopia (kide aktibo guztiena)
- Errolda-agiria.
- Elkarbizitza-agiria.

Emandako botoak azaltzeko txandan, Xabier Ibarguren zinegotziak (EH BILDU) hartzen du hitza, Kultura batzordeko presidente den aldetik, eta poza adierazten du udalbatzarrak aho batez hartu duelako 2020-2021 ikasturteko musika-irakaskuntzako



tasak ez igotzeko erabakia. Adierazten du EH BILDUK beti babestu duela proposamen hori, uste duelako, ahal den neurrian, hiru zati berdintsutan finantzatu beharko liratekeela Udal Musika Eskolaren gastuak: herena Eusko Jaurlaritzak, herena ikasleek eta azken herena Orioko Udalak.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORION 2020-2023 URTEETARAKO TURISMO-PLANA GARATZEKO ENKARGUAREN ADJUDIKAZIOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Orioko 2020-23 urteetarako turismo-plana garatzeko kontratua KULTUR ATELIER SL entitate merkantilari adjudikatzea proposatzen da.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Turismo, Merkataritza eta Ostalaritza batzordeak 2020ko martxoaren 10ean diktaminatutakoa ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Anuska Esnal Oliden (EH BILDU), Ainara Munduate Iguaran (EH BILDU), Xabier Ibarguren Azkue (EH BILDU), Beñat Solaberrieta Albizu (EH BILDU), Bakarne Oliden Albeniz (EH BILDU), Bittor Andres Alkorta (EH BILDU) eta Ana Priede Merchan (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Lourdes Salsamendi Goñi (EAJ), Andoni Torres Fernandez (EAJ), Jon Basurko Sarasua (EAJ), Amaia Gozategi Urbietak (EAJ), Jose Javier Gomez de Segura Arce (EAJ) eta Jose Angel Iparragirre Alberdi (ORAIN); guztira **SEI ABSTENTZIO-BOTO**]:

ADJUDIKATZEA Orioko 2020-23 urteetarako turismo-plana garatzeko kontratua KULTUR ATELIER SL entitate merkantilari. Kontratuaren adjudikazioaren prezioa 16.335 eurokoa da, BEZa barne.

Emandako botoak azaltzeko txandan, Lourdes Salsamendi zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak abstentzio-botoa eman duela, Turismo, Merkataritza eta Ostalaritza batzordean joan den martxoaren 10ean emandako botoarekin bat etorritik, bere talde politikoaren ustez, eskaintza aurkeztu zuen beste enpresa batek lan-esperientzia handiagoa zuelako, nahiz eta enpresa adjudikaziodunari buruz ezer txarrik ez duten esateko.

Bakarne Oliden zinegotziak (EH BILDU) hartzen du hitza, Turismo, Merkataritza eta Ostalaritza batzordeko presidente den aldetik, eta adierazten du Orioko turismoari buruzko plan estrategiko bat egitea behar-beharrezkoa dela: turismoa zeharkako fenomeno da eta ekintza-planak egin behar dira. Adierazten du, baita ere, bere ustez, kontratua adjudikatu zaion enpresak gaitasun handia duela lan hori behar bezala egiteko.

Xabier Ibarguren zinegotziak (EH BILDU) hartzen du hitza, Kultura batzordeko presidente den aldetik, eta adierazten du pozik dagoela kontratu hau adjudikatu izanarekin, eta adierazten du, baita ere, kontratua adjudikatu zaion enpresak lan-esperientzia zabala eta egiaztatua daukala Orioko turismo-plana garatzeko.



Azkenik, Jose Angel Iparragirre zinegotziak (ORAIN) hartzen du hitza, alde batetik, Xabier Ibarguren zinegotziak adierazitakoarekin erabat ados dagoela adierazteko, eta, bestetik, esateko kontratu honen adjudikazioaren aurrekari historikoak SIADECO garai batean egindako azterketa batean daudela eta, haren ondoren, planteatzen zena hau zela: behin udal-kanpineko zuzendaria eta turismo-teknikaria kontratatuta, haien eginkizuna izango zela Orioko Turismo Plana garatzea.

7.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAK ORTZAIIKA AUZOAN ETA HONDARTZA EREMUAN AUTOPISTA AZPIAN DITUEN AUTOKARABANA-GUNEEN ERABILERA ARAUTZEN DUEN UDAL-ORDENANTZARI.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza batzordeak 2020ko apirilaren 6an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko Udalak Ortzaika auzoan eta Hondartza eremuan autopista azpian dituen autokarabana-guneen erabilera arautzen duen udal-ordenantzari.

2.- Espedientea JENDAURREAN JARTZEA, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoa betez, interesatuek aukera izan dezaten udalbatzarraren aurrean oharak eta iradokizunak aurkezteko, hogeita hamar laneguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita. Udal-ordenantza hori interesatuen eskura dago udal-idazkaritzan, lanegunetan, 8:30etik 14:30era; jendaurreko epea pasa eta ez bada erreklamazio edo iradokizunik aurkezten, behin betikoz onartutzat joko da udal-ordenantza, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

Epe hori ez da kontatzen hasiko, hala ere, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak eta horren luzapenek COVID-19 gaitzak sortutako osasun-krisia kudeatzeko deklaraturako alarma-egoerak indarra galtzen ez duen arte.

Emandako botoak azaltzeko txandan, Jose Angel Iparragirre zinegotziak (ORAIN) hartzen du hitza, bertaratutako zinegotzi guztiei zorionak emateko udal-ordenantza hau behingoz onartu izanagatik; eta, gainera, aho batez.

8.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Lourdes Salsamendi zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak elkartasuna erakutsi nahi diela COVID-19ak sortutako egoeraren biktima guztiei eta eskerrak eman nahi dizkiela oriotarrei, alarma-egoera hasi zenetik



erakutsi duten jarrera bikainagatik. Adierazten du, baita ere, pandemiak Udalaren diru-kutxan sortutako gailak arintze aldera, bere talde politikoko kideek uko egin diotela, martxoaren 14an hasi eta alarma-egoerak irauten duen bitartean, udal-organoetan parte hartzeagatik dagozkien diru-sariak jasotzeari eta, horrez gain, EAJ talde politikoak ere uko egin diola Udaletik jasotzen duen hileko diru-sariari.

Ana Priede zinegotziak (PSE-EE-PSOE) hartzen du hitza, Orioko herritarren portaera eredugarria eskertzeko COVID-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoeran. Adierazten du Orioko Udalak ahalegin handia egin duela, osasun-krisi hori ahalik eta gehien arintzeko, gizarte-zerbitzuak nabarmen indartuz.

Era berean, Ana Priede zinegotziak kritikatu egiten du EAJ talde politikoak publiko egitea Udaleko diru-sariei uko egiteko hartu duen erabakia. Anak dio erabaki hori publiko egitea marketina dela.

Jose Angel Iparragirre zinegotziak (ORAIN) hartzen du hitza, eta adierazten du bat datorrela Lourdes Salsamendi zinegotziak bere hitzartzearen lehen zatian adierazitakoarekin eta bat datorrela, baita ere, Ana Priede zinegotziak adierazitakoarekin, marketinaren aipamena kenduta.

Jose Angel Iparraguirre zinegotziak adierazten du, baita ere, bere talde politikoak jarrera inklusiboa duela une oro, eta, aldi berean, zoriondu egiten dituela herriko kirol-elkarteak, oso ondo ulertu dutelako Udalak beren dirulaguntzen %25 «izozteko» hartu duen erabakia. Kontuan hartzekoa da kirol-elkarte horiek hiru finantzaketa-iturri dituztela nagusiki: kirolarien fitxak, babesleak eta, garrantzizkoena, Udalaren dirulaguntza.

Xabier Ibarguren zinegotziak (EH BILDU) hartzen du hitza eta Jorge Oteiza eskultore oriotarraren esan bat ekartzen du gogora: «Hutsak bete egiten du» eta, horren haritik, eskerrak eman nahi dizkie Karkarari, Txurumuskiri, herriko musikariei eta abarrei, alarma-egoera honetan erakutsi duten jarreragatik, egin duten lanagatik eta herritarron hutsuneak betetzeko abian jarri duten ahalegin solidario handiagatik.

Aipamenengatik, Lourdes Salsamendi zinegotziak hartzen du berriz hitza, adierazteko bere talde politikoak ez duela inolako polemikatan sartu nahi COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren aurrean. Adierazten du, bestalde, bere talde politikoak eta taldea osatzen duten zinegotziek dagozkien diru-sariei uko egitea eta horiek dohaintzan ematea oso erabaki proaktiboa izan dela, eta ez dela inolaz ere izan marketina egiteko modu bat.

Segidan, Lourdes Salsamendi zinegotziak adierazten du Orion tokiko merkataritza sustatzeko egindako bideoa oso ondo zegoela eta zorionak ematen dizkio dagokionari.

Azkenik, alkateak hartzen du hitza eta adierazten du udalbatzarreko zinegotzi guztiek norabide berean egin behar dutela arraun, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondorioz sortutako beharrei aurre egiteko, eta nabarmentzen du Udalak hartutako



ORIOKODALA



erabakiak Bozeramaileen Batzordean eztabaidatu eta adostu direla: lehen fase batean, beharrezko aurrekontu-partidak egokitu dira 2020ko aurrekontu propioan, eta gizarte-larrialdietarako laguntzekin lotutako aurrekontu-partidak indartu dira. Bukatzeko, esker ona eta maitasuna adierazten die Orioko herritar guztiei eta Udaleko langileei.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,